

KROKODILO TXIKIA MAITEMINDU DA

Testua eta ilustrazioak: DANIELA KULOT

Itzulpena: AINHOA IRAZUSTABARRENA

Azal gogorrez koadernatua. 23 x 29,8 cm. 32 orrialde. 16,50 €.
PORTUGALEKO IRAKURKETA PLAN NAZIONALA

Krokodilo txikia maitemindu da (euskara)

ISBN 978-84-9172-114-7. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

Cocodrilo se enamora (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-290-9. Obras de autor. Primeros lectores.

Crocodilo namorado (galegoa)

ISBN 978-84-8464-288-6. Demademora.

El cocodríl enamorat (katalana)

ISBN 978-84-8464-287-9. Obres d'autor. Primers lectors.

Um pequeno Crocodilo temerento que só visto (portugesa)


ISBN 978-989-8205-63-6. Obras de autor. Primeiros leitores.

Badira egun batzuk Krokodilo urduri dabilela. Batzuetan hotz da, beste batzuetan bero. Batzuetan, izugarri triste sentitzen da. Beste batzuetan, mundu osoa besarkatu nahiko luke, pozaren pozez. Argi dago: Krokodilo maiteminduta dago...

Liburu hau Krokodilo eta Jirafa protagonista dituen bilduma bateko lehen alea da. Bi pertsonaia hauek elkarrekin maitemindu eta bikote bitxia osatzen dute. Itxuraz, beren bikote-harremana zaila izan liteke; izan ere, bada beraien artean desberdintasun nabarmen bat: altuera. Baina Krokodilok bere trebezia guztia erabiliko du Jirafaren arreta bereganatzeko. Hala, Krokodilok eginahal guztiak egingen ditu Jirafarekin topo egin eta haren interesa pizteko, eta ahalegin horretan umorez beteriko egoerak gertatuko dira. Halabeharrik, ordea, zapuztu egingen du maitasunaren txispa pizteko beharrezkoa den begirada- eta irribarre-gurutzaketa hori.

Liburu honetan sentimendu unibertsal bat agertzen da, eta hizkera xume eta hurbil baten bidez azaltzen da maitemintzean sortzen den sentsazio eta emozio uholdea. Halaber, aipatzekoa da gai horren trataera globala, eguneroko egoeretatik abiatuta. Arraza, kultura eta sinesmen desberdinen integrazioa bilatzen den gizarte honetan, non familia mota berriak gero eta ohikoagoak diren, lan honek funtsezko mezu bat plazaratzen du: ez da altuera, pisu, hizkuntza edo kultura kontua; maitasuna pizten denean, ez dago gairik ezinezko oztoporik.

Estetikaren aldetik, Daniela Kuloten estiloari xamurtasuna eta kolorea darie. Krokodilo eta Jirafaren bilduma beste ale hauek ere osatzen dute: “Krokodilo txikia, jirafa altua era neurri kontuak”, “Krokodil und Giraffe: ein richtig echtes Liebespaar” –laster euskaraz– eta “Krokodil und Giraffe: eine ganz normale Familie”.



■ **Gala:** maitasuna eta bikote-harremana.

■ **Gomendatutako adina:** 5 urtetik aurrera.

■ **Alderdi alpagarriak:** oztipoak gainditzen dituen maitasunari eta desberdintasunak onartzeari buruzko hausnarketa; bikotea eta familia. Bildumako beste izenburu batzuk: “Krokodilo txikia, jirafa altua era neurri kontuak”, “Krokodil und Giraffe: ein richtig echtes Liebespaar” eta “Krokodil und Giraffe: eine ganz normale Familie”. Idazlearen beste lan batzuk: “Lea lernt Schleife binden” eta “Munkeln im Dunkeln”.

■ **Liburuaren lagina:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/krokodilo-txikia-maitemindu-da-eusk>

Daniela Kulot

(Schongau, 1966)

1988an Arte Hezkuntzako ikasketak hasi zituen Augsburg-eko Unibertsitatean, eta ondoren diseinu grafikoa eta ilustrazioa ikasi zuen. 1993an margolari, ilustratzaile eta diseinatzaile gisa hasi zen lanean, freelance moduan. Municheko Arte Ederren Eskolan osatu zuen bere prestakuntza. Haur literaturako nazioarteko azoketan ibili zen, hala nola Boloniakoan, eta Thienemann argitaletxe alemaniarrek bere lanak argitaratzeko lehen aukera eman zion. 1999an marrazketa eskolak ematen hasi zen Augsburg-eko Lanbide Eskolan. Bere lanak ikusgai egon dira Bratislavako Nazioarteko Biurtekoan (1997), Günzburg-eko Museoa (2001) eta Nagamako (Japonia) Arte Erakusketan (2002), besteak beste.

<http://daniela-kulot.de>

